

## Bestelako Xedapenak

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

5016

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: «Ebazpena, 2009ko abuztuaren 13koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena; honen bidez, argitara ematen da uraren gaian ingurumenaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

2009ko abuztuaren 31ko EHAA (166. zenbakia) Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2009ko abuztuaren 13ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez argitara ematen baita uraren gaian ingurumenaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia. Goiko paragrafoan aditzera emandako moduko hutsak atzeman direnez, zuzenddu egiten dira orain.

2009/4781 (1) orrialdean, lehenengo ebazpen-zatian,

Honako hau dioen tokian:

«Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, mankomunitateei, partzuergoei eta tokiko beste erakunde batzuei nahiz elkarte eta fundazioei zuzendutako diru-laguntza lerro baterako deialdia argitara ematea. Uraren gaian informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko ekimenen gastuak ordaintzeko izango dira diru-laguntzak.»

Honako hau esan behar du:

«Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, mankomunitateei, partzuergoei eta tokiko beste erakunde batzuei, horietako batek edo hainbatek osatutako tokiko baltzu merkantilei, nahiz elkarte eta fundazioei zuzendutako diru-laguntza lerro baterako deialdia argitara ematea. Uraren gaian informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko ekimenen gastuak ordaintzeko izango dira diru-laguntzak.»

## Otras Disposiciones

### AGENCIA VASCA DEL AGUA

5016

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 13 de agosto de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se hace pública la convocatoria de subvenciones a las actividades de formación y sensibilización ambiental en materia de aguas.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la resolución de 13 de agosto de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se hace pública la convocatoria de subvenciones a las actividades de formación y sensibilización ambiental en materia de aguas, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 166, de 31 de agosto de 2009, se procede a su corrección:

En la página 2009/4781 (1/10), en el Resuelto Primero,

Donde dice:

«Hacer pública la convocatoria de una línea de subvenciones dirigida a Ayuntamientos, Mancomunidades, Consorcios, y otras Entidades Locales así como a las Asociaciones y Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo objeto es sufragar los gastos derivados de las iniciativas relacionadas con la información, formación y sensibilización ambiental en materia de aguas.»

Debe decir:

«Hacer pública la convocatoria de una línea de subvenciones dirigida a Ayuntamientos, Mancomunidades, Consorcios, y otras Entidades Locales, las sociedades mercantiles locales integradas por una o varias de ellas, así como a las Asociaciones y Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo objeto es sufragar los gastos derivados de las iniciativas relacionadas con la información, formación y sensibilización ambiental en materia de aguas.»

2009/4781 (3) orrialdean, eranskineko 3. puntuan,

Honako hau dioen tokian:

«Onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, partzuergoek eta tokiko beste erakunde batzuek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak; eta irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioek ere bai, legez eratuta badaude eta gutxienez Ebazpen hau argitaratu baino urtebete lehenago administrazioan erregistratuta badaude, eta beren egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan baldin badaukate.»

Honako hau esan behar du:

«Onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, partzuergoek eta tokiko beste erakunde batzuek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak; horietako batek edo hainbatek osatutako tokiko baltzu merkantilek, eta irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioek ere bai, legez eratuta badaude eta gutxienez Ebazpen hau argitaratu baino urtebete lehenago administrazioan erregistratuta badaude, eta beren egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan baldin badaukate.»

En la página 2009/4781 (3/10), en el anexo, punto 3,

Donde dice:

«Beneficiarios.

Podrán ser destinatarios de las subvenciones los Ayuntamientos, mancomunidades, consorcios, y otras Entidades Locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco así como las Asociaciones y Fundaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas, e inscritas en los correspondientes Registros administrativos con una antelación de al menos un año desde la fecha de publicación de la presente Resolución y que tengan su sede o delegación permanente en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

Debe decir:

«Beneficiarios.

Podrán ser destinatarios de las subvenciones los Ayuntamientos, mancomunidades, consorcios, y otras Entidades Locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, las sociedades mercantiles locales integradas por una o varias de ellas, así como las Asociaciones y Fundaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas, e inscritas en los correspondientes Registros administrativos con una antelación de al menos un año desde la fecha de publicación de la presente Resolución y que tengan su sede o delegación permanente en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.»